



BARREN

TOKIKOM

'Eguenean bostetan'

Maialen Sanchez





943 743 704
688 769 657



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

**Galdetu prezioak
eta gustura erantzungo dizugu.**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



Jon Aranoa
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astekarietik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Beopindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordus hartuko.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

EXPRESS ESKAINTZAK!

BALAY 3TS982 XD
ARROPA GARBIGAILUA

599 €

(dendako prezioa)

103,96 €-ko errenboltsoa
oparituko dizugu,
* kontsultatu baldintzak.
Azken prezioan sartu gabe.

- 8 kg kargako garbigailua.
- 1.200 bira/min.
- Hasiera geroratua.
- Aparteko motor isila.
- Autodosifikazioa: erosotasun handiena.
- Bete behin garbigarri eta leungarri-depositua,
eta ahaztu hilabetez.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



Hierarkiak zer diren

ere filmean presente egongo zela, baina segurutzat jo nuen filmaren haria euskaraz izango zela. Eta hura sorpresa! Filma euskaraz grabatuta zegoela agerikoa zen, ezpainak irakurtzea besterik ez zegoen, baina norbaitek hartu zuen, ba, film hura bikoizteko lana!

Hura izan zen lehen txokea, eta hasiera hark ez zidan utzi filmaz begirada kritiko zorrotzik gabe gozaten. Konturatu nintzenerako, indignazioa lagun, uneoro ari nintzen "bertsio originalean" euskaraz ariko ote ziren ala ez pentsatzen. Saiatu nintzen ideia hori alboratu eta enegarrenez euskara ulertzen ez dutenekin eta gainera azpituak irakurri ezin dituztenekin edo hori guztia batera egiteko gai ez direnekin eta abar luze batekin enpatia iza-

ten. Baina bat-batean han hasten dira pertsonaiak ingelesez (azpituak) eta geroxeago frantsesez (azpituak). Orduantxe puskatu ziren nire eskemak; euskara ulertzen ez dutenekin eta gainera azpituak irakurri ezin dituztenekin edo hori guztia batera egiteko gai ez direnekin, zer gertatzen da horiekin guztiekin? Esan gabe doa galdera horrek ez duela erantzunik behar.

Zatarra da hierarkia hori erreproduzitu izanaren errudunak bilatzea eta ardua norbaiti leporatzea, baina badago norbait erabaki horren atzean. Ez al da tamalgarria zinemara zapatu guetan joan behar izatea euskarazko filmak "bertsio originalean" ikusi ahal izateko?

Zinemak izan naiz asteburuan, aspaldiko partez. Ez dakit Donostiako Zinemaldiaren eragina izan zen ala ez, baina banuen antzokiko goxotasunean film polit bat ikusteko gogoia. Poztu nintzen Lara Izagirren *Nora* filma botako zutela ikusi nuenean. Pelikula sinplea zirudien, lasai gozatzekoa, beraz, gogotsu bertaratu nintzen.

Pelikula euskalduna izanda ere, protagonista aitona argentinarra den heinean, eta euskal zinemagintzan gertatu ohi den moduan, banekien gaztelania

"Filma euskaraz grabatuta zegoela agerikoa zen, ezpainak irakurtzea besterik ez zegoen, baina norbaitek hartu zuen, ba, film hura bikoizteko lana!"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Zinemaren Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloea Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
URDIA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► **ENPRESA ELEKTRIKOAK EGITEN ARI DIREN LAPURRETAREN AURKAKO ITZALALDIAN ETA LAPIKO-JOTZEAN PARTE HARTZERA ANIMATZEN DITUGU HERRITARRAK**

Azken asteetan ikusten ari gara argindar enpresa handiak egunez egun igotzen ari zaizkigula argindarraren prezioa. Ez dago markak apurtzen ez dituen egunik. Azpian sinatzen dugunok uste dugu nahikoa dela esateko unea iritsi dela, elektriko enpresaren aurrean planto egiteko unea iritsi dela.

Datorren ostiralean, urriaren 8an, 22:00etan, Euskal Herriko herri eta auzo guztietan itzalaldi bat eta lapiko-jotze bat izango dira. Elgoibarren lapiko-jotzea kalejiran egiteko deialdia luzatzen dugu, Maalako parketik hasi eta Kalegoen plazaraino, enpresa elektriko handiak gure herritarren eta enpresa txiki eta ertainen kontura egiten ari diren lapurretaren aurrean ez garela besoak gurutzatuta egongo salatzen. Salatuko dugu ez dugula argindarraren prezioa ezartzeko behar besteko subira-

notasun energetikorik; Espainiako Estatuari, berriz, alderdi handiek ez dituzte geldiarazten argindar elektriko enpresen botere eta diru nahiak, eta ez dugu ahaztu nahi alderdi horietako ordezkari esanguratsuak daudela enpresa elektriko enpresen administrazio-kontseiluetan.

Ez gaude bakarrik salaketa honetan. Kataluniako, Galizako eta Euskal Herriko indar independentistok indarrak batu nahi izan ditugu, eta ostiraleko protesta ekitaldia aldi berean egingo da hiru herrialde horietan. Enpresa elektriko enpresen nahikoa dela esateko ordua da. Bada garaia erakusteko gure herritarren ez dugula uzten gehiengoaren eskubideekin jolasten (energia arrazoizko prezioan eskuratzea oinarritzko eskubidea delako), gutxi batzuek poltsikoak betetzen dituzten bitartean. Ostiralean, urriaren 8an, herritarrek bizitza duinak izan dituzaten borrokatzen duen herri duina garelako erakutsiko dugu.

EHBildu, LAB Sindikatua, Duintasuna elkarteak, ELA Sindikatua, Elgoibarko pensionisten mugimendua, Elgoibar 1936,

Narrutsik feminista taldea, Ernai ezker abertzale gazte taldea, Tawasol komunitatea, Sare preso eta iheslarien aldeko taldea eta Elgoibarko Gazte Asanblada

► **OHARRA**

Urriaren 12an jai eguna dela eta, datorren astean ez dugu BARREN aste-karia kaleratuko. Hurrengo alea urriaren 22an jasoko duzue.

BARREN




I. URTEURRENA

Rafael Segura Linero

2020ko urriaren 7an hil zen, 63 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.




II. URTEURRENA

Jesus Mari Ansuategi Cobo

2019ko urriaren 15ean hil zen, 54 urte zituela

Joan zinen gu hemen utzita, baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.

Zure familia





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus ☎ 943 744 112 📞 688 634 044



Sigmako autobus geltokian zabor poltsak utzi dituzte: "Sigma auzoa oro har ahaztuta dauka Elgoibarko Udalak. Herri barruko autobus zerbitzua ez da Sigmara iristen, eta auzo barruan irisgarritasun arazo larriak ditugu, Adineko asko bizi da bertan, eta asko ezin dira kalera ere irten, espaloio guztietan eskailerak daudelako. Eta orain, gainera, bizilagunen bat zabor poltsak Herri Eskolako autobus geltokian lagatzen hasi da. Azken hiru astelehenetan agertu dira zabor poltsak autobus geltokian. Ez dago eskubiderik".



Zakarrontziak behar dira IMHko skate park inguruan: "Gune aproposa da IMH ingurua gazteen-tzat, eta asteburuetan jende asko biltzen da inguru horretan. Mahaiak eta aulkiak jarri dituzte, baina zakarrontziak behar dira. Eskertuko genuke zakarrontziak jartzea. Ingurunea bera ere txukunago egongo litzateke".



Txakurrek ura edateko iturriak behar dira herrian: Txakurjabe batek ondorengo argazkia bidali du BARREnera. Beste herri batzuetan ikusi izan ditu horrelakoak, eta Elgoibarren ere horrelako iturriak behar direla iruditzen zaio: "Txakur asko dago Elgoibarren, eta askotan zailtasunak izaten ditugu txakurrei ura emateko. Horrelako iturriak irtenbide interesgarriak izan daitezke". Udaleko Hirigintza Sailera jo dugu, eta esan dutenez kontuan hartuko dute gai hau hurrengo iturriak aldatu behar dituztenean.



Urazandiko haur eskolako obrarekin asko irabazi du parkeak: "Urazandiko haur eskolako tei-latua luzatu dute, eta horri esker estalpeak asko irabazi du. Margotu egin dute, eta orain askoz argitsuagoa da. Eurria egi-ten duen egunetan ere parkean egoteko aukera izango dugu aurrerantzean. Eskerrik asko".

Itzalaldia eta lapiko-jotzea gaur gauean, enpresa elektrikoen kontra

Argindarraren garestitzea salatzeko argiak itzaltzera eta lapikoak jotzera deitu dituzte herritarrak gaur gauerako. Euskal Herriko, Galiziako eta Herrialde Katalanetako zenbait erakunden partetik etorri da deia, eta Elgoibarko erakunde batzuek ere bat egin dute deialdiarekin: EHBildu, LAB Sindikatua, Gaurgeroa-Duintasuna, ELA sindikatua, Elgoibar 1936, Narrutsik feminista taldea, Ernai ezker abertzale gazte taldea, Tawasol komunitatea, Sare preso eta iheslarien aldeko taldea eta Elgoibarko Gazte Asanblada.

Enpresa elektriko handien iruzurrari erantzuteko protesta ekitaldia izango da, eta nahikoa dela esateko baliatuko dute. 22:00etan etxeetako argi guztiak itzali eta lapiko-jotzea egingo dute. Elgoibarren, lapiko-jotzea kalejiran egitea proposatu dute, Maalatik Kalegoen plazara.

Ehun euroko sei erosketa bono banatu ditu Txankakuak stock kale azokan



Txankakua merkatarik elkarteko dendak kalera irten ziren joan zen asteburuan, eta eguraldia lagun, jende asko ibili zen. Stock kale azokan erosketak egin zituztenen artean ehun euroko sei erosketa bono zozkatu zituzten, eta hauek izan dira irabazleak: Garazi Sampetro, Luis Rubio, Nieves Rabancho, Unai Mir, Amaia Sastre eta Bego Iriondo.

Euskal Herrian lehenengoz Elgoibarren aurkitu dute 'Aedes japonicus' eltxoa

Aedes japonicus eltxo espezie inbaditzailea Elgoibarrera ere iritsi da. Ander Izagirre biologo elgoibartarrak eman du honen berri Naturzalia blogean, nahiz eta bera gehiago den narrasti eta anfibioak erakutsi zalea. Kontatu du iazko udan hasi zela guztia, lagun batek eltxo baten argazkia bidali zionean. Hasieran tigre eltxoa izan zitekeela pentsatu zuen, baina zalantzak argitze aldera hainbat adituren atek jo zituzten. Azkenean, Zaragozako ikertzaile batzuk identifikatu zuten espeziea. *Aedes japonicus* eltxoa zen, ordura arte Euskal Herrian ikusi gabea. Asia ekialdeko espeziea jatorriz, Europa erdialdeko zenbait herrialdetan aurkitu izan dute eltxo hau. Gertuago, Asturiasen (2018an) eta Kantabriaren (2019an) bakarriz izan da zitatua. Orain arte egindako ikerketen arabera, arrisku baxuko eltxoa dirudiela esan dute.



Arg.: Ander Izagirre Egaña

Langabeziak gora egin du irailean Elgoibarren

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu sailburu Idoia Mendiak enplegua "eten-gabe" suspertzen ari dela adierazi du, eta irailean langabeziak azken 15 urteotan izan duen beherakadarik handiena izan duela. Debabarrena eskualdean ere jaitsi egin da langabezia-tasa, Elgoibarko eta Mutrikuko igo egin diren arren. Elgoibarren 501 langabe daude erregistratuta enplegu bulegoetan. Abuztu bukaeran baino hamar langabe gehiago. Elgoibarrek dituen 11.570 biztanleetatik 5.422 dira biztanleria aktiboa. Hortaz, %9,24koa da langabezia-tasa (%8,88koa zen abuztu bukaeran). Urtebete atzera eginez gero, berriz, 630 langabe zeuden Elgoibarren 2020ko irailean eta %11,39koa zen langabezia-tasa. Mendaron ez da aldaketa handiegirik egon, aurreko hilean baino langabe bat gutxiago baitago. Debabarrena eskualdean 58 langabe gutxiago daude aurreko hileko datuekin alderatuta. Debabarrenean 2.792 langabe daude, eta %10,65ekoa da langabezia tasa. Hauek dira herriz herri Debabarreneko datuak: Eibar 1.565 (%12,32), Elgoibar 501 (%9,24), Mendaro 86 (%8,46), Deba 174 (%6,67), Mutriku 214 (%8,24), Soraluze 252 (%13,50).

Osasun larrialdia indargabetu du Jaurlaritzak, baina oraindik musukoa erabili beharko da

A buztuaren 17tik indarrean egon den osasun larrialdia bertan behera laga du Eusko Jaurlaritzak, eta orain arteko neurri murriztaile gehienak arindu ditu, baina oraindik ere maskara nahitaezkoa izango da leku itxietan, bai eta kanpoaldean ere, 1,5 metroko segurtasun distantzia ezin denean gorde. Atzo hasi genuen osasun zaintza fase berria, eta neurri murriztaileak arinagoak izango dira aurrerantzean: espazio itxietan eta 5.000 ikusle baino gehiago sartzen diren lekuetan %80ko edukiera mantenduko dute, baina ez da aforo mugarik egongo ostalaritza, merkataritza eta kultura ekitaldietan, aipatutako kasuan salbu. Tabernetako barran kontsumitzeko aukera ere izango dute bezeroek. Horrez gain, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) Aholku Batzordea desegin dute. Kutsatzeak geldiarazteko hartu beharreko neurriak aztertu eta proposatzea izan da batzordearen zeregina azken hila-beteetan, eta pandemia hasi zenetik 34 bilera egin dituzte.

Bost lanpostu betetzeko deialdi publikoa egin du Udalak

Elgoibarko Udalak bost lanpostutarako deialdi publikoa ireki du, Lanbiderekin lan-kidetzan. Lau lanpostu ofizio anitzeko langile izateko dira, eta administrari laguntzaile lanpostu bat da bestea. 2021eko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzarako laguntzen barruan, Elgoibarko Udalak 97.143,73 euroko diru-laguntza jaso du eta laguntza hori baliatuko du lanpostu horien deialdia martxan jartzeko. Bi kasuetan, dedikazioa lanaldi osokoa izango da, 4 hilabeterako. Lan-eskaintza horietan izena eman nahi dutenek Lanbideren Elgoibarko bulegoetara jo dezakete. Izena emateko azken eguna urriaren 12a da, eta azaroan hasiko dira lanean. Lanpostu bakoitzari buruzko informazio zehatza eskuratzeko Lanbideko bulegora jo daiteke.

Espaloiak berritzen ari dira San Roke eta Trenbide kaleetan



Irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, espaloiak berritzen ari da Udala herriko zenbait auzo eta kaleetan. San Roke eta Trenbide kaleen txanda da orain. Udalak, 99.819,64 euroko inbertsioa egin du (BEZ kanpo), eta ondo bidean, bi hilabetetan amaituko dituzte lanak.

Ordenantza fiskaletan abstentzioaren alde egin izanaren arrazoiak eman ditu EH Bilduk

Joan zen asteko Osoko Bilkuran onartu zituzten ordenantza fiskalen bozketan abstenitu egin zen EH Bildu, eta orain, horren arrazoiak azaldu dute. Beraien ustez, "ahalegin handiagoa" egin behar zuen udal gobernua, eta koalizioa "oso kritikoa" azaldu da, batez ere, kirol abonua % 5 igotzearekin. "Uste dugu ez dela inondik inora onargarri KPla momentuz % 3,3 igo denean, % 5eko igoera planteatzea. EH Bildutik % 1,5eko igoera proposatu genuen, baina ez digute aukerarik eman tasa hori negoziatzeko", adierazi dute.

Ordenantzei lotuta, baina, zenbait alor hobetzea lortu dutela ere nabarmendu du EHBilduk: "Besteak beste, OHZren tasetan beste diru sarrera tarte bat irekitzea lortu dugu, sarrera gutxien dutenek hobari handiagoak izan ditzaten. Zaborren kasuan gazte lokalei tasa igotzeko proposamena geldiaraztea eta zerbitzua hobetzeko egin ditugun planteamenduak aztertzeke konpromisoa hartu dute, eta etxebizitza hutsak merkaturatzeko helburuarekin, etxebizitza hutsen azterketa zehatza egiteko konpromisoa ere bai. Hurrengo ordenantzetarako genero ikuspegia txertatzeko lanketa egiteko konpromisoa eta eguzki plaken kasuan enpresen hobariei inbertsioaren araberako muga bat jartzea ere onartu dute".

Ordenantza fiskalen bitartez zerbitzu publikoaren kalitatea bermatzeko ezinbestekoa diren udal zergak arautzen direla gogora ekarri dute Bildutik, baina azpimarra jarri dute aberastasunaren birbanaketa hobea lortzeko tresna ere badirela, are gehiago pandemiak eragindako kalte ekonomikoak herriko zenbait sektoretan "nabarmena" direnean.

Gazteen emantzipazio eskari eta beharrari buruzko diagnosis egingo du Udalak



Elgoibarko Udala herriko gazteen emantzipazio-eskariaren eta beharren diagnostikoa egiten hasi zen irailean eta prozesua bigarren fasean sartu da orain. 18 eta 34 urte bitarteko 500 gazteren artean egingo dituzte inkestak, bi multzotan banatuta: batetik, oraindik emantzipatu ez diren gazteei egingo diete galdeketa, eta bestetik, azken bi urteetan emantzipatu direnei. Eustatek argitaratutako datuen arabera, 2020an 11.540 pertsona zeuden Elgoibarren erroldatuta, eta horietatik 1.699 ziren 18 eta 34 urte bitartekoak, biztanleriaren % 14,7 hain zuzen ere. Diagnostiaren emaitzak aztertu ondoren, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzen ildoekin batera, bi erakundeen arteko lankidetzarako aukera aztertzeke asmoa azaldu dute.

Gai honi lotuta, etxebizitza hutsen diagnosis egin zuen Udalak 2017an, eta urte honetako azken hiru hilabeteetan eguneratuko dute azterketa hori. Era berean, Gaztelagun laguntza-programaren diru-laguntza lerroa dauka martxan Udalak 2017tik, 18 eta 34 urte bitarteko gazteentzat, eta emandako datuen arabera, bost urte hauetan, 89 pertsona izan dira laguntza horien onuradunak.

Udazkeneko 'Bizi Bizixa' bono kanpainan izena emateko epea zabalik dago

Herriko merkataritza sustatzeko asmoz, Elgoibarko Udalak udazkeneko *Bizi bizixa* bono kanpaina jarri du martxan, eta merkatariek urriaren 20ra arteko epea dute kanpainarako izena emateko. Udazkeneko kanpaina honetan, Udalak 30.000 euro inbertituko ditu eta 3.000 merkataritza-bonu aterako ditu. Bonoei esker, herritarrek %30eko deskontua eskuratu ahal izango dute. Establezimenduetan erosi beharko dira bonuak, erosketa egiterako unean bertan, edota aurrez. Erosketak 5 eurokoak izan beharko dira gutxienez, eta gehienez, 60 eurokoak izan daitezke. 5 euroko balioa duten erosketetan 1,5 euroko dirulaguntza emango du Udalak; 10 eurokoentzat, berriz, 3 eurokoa; 20 euroko erosketetan, 6 eurokoa, eta 30 eurokoetan 9 euroko dirulaguntza.

Udalak aurreratu du 3.000 bonoak modu ekitatiboan banatuko dituztela izena ematen duten establezimenduetan, eta gaineratu du kanpaina honetatik at geratu direla farmaziak, estankok, gasolindegia, apustuak egiteko establezimenduak, elikagaien saltokiak, azalera handiko saltokiak eta 15 langiletik gorakoak.

Urazandiko haur eskolako estalpea handitzeko obrak amaitu dituzte


Herri Eskolako eskolaurrearen estalpea handitzeko lanak amaitu dituzte, eta dagoeneko, era biltzeko prest dago estalpe berria. 2019ko aurrekontu partehartzaileetan herritarrek euren botoen bidez aukeratutako proiektuetako bat izan zen honakoa, eta egitasmo horren barruan gauzatu dute obra hau. Negu sasoirako zein egun euritsuetarako parke edo espazio estali bat sortzea izan da obra honen helburua, eta horretarako, lehenik zegoen eraikinaren estalpea handitu dute.

Estalpe berriak, lehenik zegoenari gehituta, gutxi-gorabehera 55 metro koadroko espazioa estaltzen du. Garbitu, margotu eta argitasun handiagoa eman diote. Lanek 44.052,83 euroko aurrekontua izango dute (BEZ barne), eta Asketa eraikuntza enpresak burutu ditu.



Gaindegiak eman zuten datua: 80 urtetik gorako pertsonen kopurua ia bikoiztu egin da azken hogeitun urtean, %3,9tik %7ra. EBko gainzahartze tasatik gora dago Euskal Herrikoa. Batezbestekoa %5,9koa da, eta Italia (%7,4) eta Grezia (%7,2) bakarrik daude Euskal Herriko zenbatekoaren gainetik. Ezagunak ditu datuok Joserra Ezenarro, Nagusilango Gipuzkoako presidentea. Ostiralean, elkarrean 25. urteurrena ospatu zuten Donostian, eta adinekoen eta haien beharrez hitz egiteko baliatu dugu urteurrena.

- AINARA ARGOITIA -



▶ JOSERRA EZENARRO NAGUSILAN-EKO PRESIDENTEA

“Adinekoak ez dugu nahi gure iritzia kontuan hartuko ez duen ezer”

♦ **“Gure herriak egin gabe du belaunaldien arteko hitzarmena”, zioen Gaindegiak. Zein momentutan apurtu da gizartearen gazteen eta zaharren arteko lotura emozionala?**

Azkeneko ehun urtean bizi-itxaropena 45 urtekoa izatetik 85ekoa izatera pasatu da. Gure aiton-amonak baino 40 urte gehiago bizi gara. Sekula ez besteko erritmoan ari gara zahartzen. Gaur egun, 65 urteko pertsona baten bizi-kalitatea 55 urteko baten parekoa da. Zahartze ereduak aldatzen ari da, urte gehiago bizi gara eta gizartearen familia eredu berriak sortu dira. Gutako askok hiru belaunaldi ezagutu ditu etxe berean. Gaur, ordea, familia unitate bakoitzak bere etxea du. Guzti horren ondorioz, nahi gabeko bakardadean bizi diren pertsonen kopurua nabarmen handitu da. Elgoibarko populazioari dagokionez, %29,52a 60 urtez gorakoa da. Gertatzen ari dena iraultza halako bat da, eta garbi izan behar dugu gizartea ez dela lehengora bueltatuko.

♦ **Rober. N. Butler psikiatra estatubatuarra deskribatu zuen estreinakoz adinkeria, 1969an. Diskriminazio modu ohikoenetan hirugarrena ei da. Non sumatzen duzu agerikoaren zuka?**

Bai, arrazakeriaren eta sexismoaren ondoren adinkeria da diskriminazio modu ohikoena. Adinaren arabera, pertsonak ezberdin tratatzeari esaten zaio eta zahartzaroaren inguruko estereotipo negatiboekin lotzen da. Emakumei eragiten die bereziki adinekoak, bizi-itxaropen luzeagoa dutelako.

Mikromatxismoa dagoen bezala, mikroadinkeria ere badago. Sinetsi dugu zahartzarora bizi-etaparik txarrena dela eta eginahalak egiten ditugu zahartzearen ageriko zantzuak igarri ez daitezkeen. Uko egiten diogu zahartzeari eta onartzen dugu urte jakin batzuekin ezin ditugula gauza asko egin. Eta hori guztia onartzen emanez, mikroadinkeria sustatzen ari gara, implizituki. Deskontu

denbora honetan ez genukeela gizartearen aktiboki inplikatu behar barneratzen dugu, halakoak esanda, besteak beste: ‘Baina zein ondo kontserbatzen zaren!’, ‘Nire garaian hori ez zen gertatzen’, ‘Nire adinean gauza horiek ez’. Adinean aurrera goazen pertsonok bizi dugun diskriminazioa isilarazi egiten da.

♦ **Zer bide proposatzen dituzue adinkeriaren kontra?**

Jarrera negatiboa sumatzen dugu zahartzaroaren inguruan. Jendea kexu da, baina izatez hau konkista bat da. Urte asko hartzea ospatzekoa da!. Gazte hiltzea da txarra, baina bizi-kalitateari gabe urte asko hartzea ere nekagarria da. Esan eta esan ari dira ez garela 100 metroko lasterketa baterako prestatu behar, baizik eta maratoi baterako. Gure estrategiak, ezagutzak eta erresistentzia-gaitasunak aldatu behar ditugu. Bizitza luzeagoa izateak badiu bere eragozpenak eta erronkak: lagun eta senideen heriotzak, pobretzeko arriskua, erretiroa hartzeak dakarren estatus sozialaren galera...

♦ **Zer dela-eta ikusten ditugu zaharrak hain urrun?**

Zahartzea ‘adinekoak ezberdinak dira’ mezuarekin lotzen dugulako, urteen poderioz izaki ezberdin bihurtuko bagina bezala. Adinekoak hain baliotsuak ez garela usteak eragin kaltegarria dakar. Guk ere gainerakoek bezala maitatzen, amesten eta sufritzen dugula pentsatuko bagenu, amaituko genituzke uste okerrak. Herri baten aurrerabidea, garapena eta heldutasuna aintzat hartzeko ez dago bizi prozesu osoaren duintasuna onartzea eta adineko pertsonak errespetatzeko eta haiei laguntzeko jarrerak lantzea baino bide hobirik.

♦ **Zer diozu nagusien infantilizazioaz?**

Hiru adibide garbi ditugula. ‘Adinekoak haur bihurtzen dira’. Uste oker horrek dakar adinekoak ume bailiran tratatzea (infantili-

Nagusilanen 25. urtemuga. Elgoibarko delegazio bat joan zen barikuan Donostian Nagusilanen 25. urtemuga ospakizunera.

zazioa). 'Adinekoak oso antzekoak gara'. Horra beste uste oker bat zahartzea prozesu uniformizat aurkezten duena. Horrek dakar tratu uniformerako joera. Hala ere, esperientziak erakusten du adinekoak ere askotarikoak garela. 'Adinekoek ezin dute, ez ikasi, eta ez ezer aldatu'. Horrek eragiten du ikaskuntzarako aukerak murriztea adinekoek. Bistan da, baina, adinekoak ere gai direla aldaketetara eta erronka berrietara egokitzeko. Adinekoek umeei bezala hitz egiteko joera daukagu eta horrek, emozionalki kalte egiten die. Hiztegi mugatua eta murriztua erabiltzen dugu haiekin, esaldi konplexuak ulertuko ez dizkigutelakoan.

◆ **Parte hartzeko aukerak badituzuela sentitzen duzu? Zuen hitza aintzat hartzen dela uste duzu?**

Parte hartzeko aukera ugari eta ezberdinak dauzkagu. Denbora libre, esperientzia eta ezagutza ere bai. Eta populazioaren portzentaje handia osatzen dugu. Garbi daukagu gure aldarrikapenak gero eta gehiago hartu beharko dituztela aintzakotzat. Horregatik garrantzia handia du elkarte indartsuak osatzea, eta horretarako, parte hartu behar dugu. Bi pentsalariren berbak datozkit gogora. Batetik, Alexandre Kalache doktore brasildarrarenak. 14 urtez izan da Osasunerako Mundu Erakundearen baitako Zahartzearen eta Bizi-kalitateari buruzko programaren zuzendaria eta berak jarri zuen martxan Hiri Lagunkoia programa adinekoekin. Kalachek dio egungo belau-naldiek etapa berri bat sortu dutela: zahartzaro aurrea. Duela gutxira arte, lan-erretiroa hartu eta gutxira hiltzen ziren. Gaur egun beste era batera zahartzen gara. Adinez zaharrak izanda ere, funtzionalki aktibo diren pertsona edadetuen kopurua handitzen ari da, eta beraz, adin kronologikoak zahartzarora neurtzeko tresna baliagarri izateari utzi dio. "Erretiroa hartu ondoren, gutxi gorabehera 30 urte inguru dauzkagu bizitzeko eta ezin ditugu urte horiek alferrik galdu", dio. Simone de Beauvoir idazle eta filosofo feministak konponbide bat proposatzen digu, gure zahartzarora iraganaren karikatura bihurtu ez dadin: gure bizitzari esanahia ematen dioten helburuak zehaztea, gizabanakoei eta taldeei lan sozialean, politikoan, intelektualean edo artistikoetan murgitzeko aukera emanda.

◆ **Jubilatuaren Egoitzako zuzendaritzatik ere aipatu zuten kargu-hartzeaz batera estereotipoak gainditu beharra.**

Bai, izan ere, zahartze-prozesu naturala baliogabetzen dute estereotipoek, eta derrigorra da haien kontra egitea. Gaur, zaharra itsusia da, ez du balio, eta kosta ahala kosta, gazte-itxurari



eusten saiatzen gara gaztetasun eternoaren bila. Ispiluaren, eta zirujau plastikoaren edo psikiatren esklabo bihurtzen gaitu horrek. Betirako gaztetasunaren bilaketa konpultsiboak ilusioak sortzen dizkigu eta gure burua den bezalakoa onartzea eragozten digu. Eta ondorioz, zapuztu egiten gara. Ez dago adineko pertsonaren perfil jakin bat, ez dago zahartzaro eredu bakarra.

◆ **Elgoibar lagunkoia egiteko lanean jardun zarete beste eragile batzuekin batera. Nolako izan da prozesua? Zeintzuk behar identifikatu dituzue?**

Udalak sustatutako plana da Elgoibar Lagunkoia, bizitzaren esparru guztietan populazioaren zahartzeak planteatzen dituen erronketan arreta jartzeko. Adinekoen bizi-kalitatea hobetzea dauka helburu, eta ondorioz, elgoibartar guztiona. Programa hori martxan jartzeko, Udaletik deitu ziguten herriko zenbait eragilerik parte hartzeko eskatuz eta talde eragilea osatu genuen. Zortzi ikerketa-ekintzetan oinarritzen den galdetegi bat zabaldu genuen gero: garraioa; etxebizitza; partaidetza eta gizarte sarea; errespetua eta inklusioa; herritarren parte-hartzea; enplegua, gizarte zerbitzuak eta osasuna, aire libre eta eraikinak. Herritarren ekarpenekin diagnostia egin genuen taldean eta Udalarari bidali. Orain dela bi hilabete gutxi gorabehera Udaleko hiru ordezkariarekin batu ginen, elgoibartarrek bidalitako proposamenei erreparatu bat emateko.

◆ **Gizarte politikak aldatu behar direla ohartarazi izan dute zuen adin bueltakoek. Zer aldatu beharko genuke guk?**

Lehenik eta behin, ondo zahartzeko, funtsezkoa da osasuna. Bigarrenik, ezagutza aipatuko nuke. Eraldaketa handiko garaia bizi dugu, teknologia berriek eragindako industria-iraultza. Bi horiek zaindu behar ditugu, baina baita lagunekin eta senideekin dugun harremana ere. Garrantzitsua da jarrera positiboa izatea, baikorrak izatea eta umore onekoak, bizitza gogorra izan daitekeelako une askotan, eta luzatzen bada, gogorragoa. Hori zaindu ezean, ez dugu izango zainduko gaituenik ere gero. Eta ez dugu ekonomia ahaztu behar. Desberdintasun handiak daude. Batez ere, emakumeek sufritzen dute, lehenengo

"Ez dago adineko pertsonaren perfil jakin bat; ez dago zahartzaro eredu bakarra"



seme-alabak eta gero adinekoak zaintzen ari direlako kotizatzeo aukerarik gabe.

♦ **Zahar etxearen gaia puri-puri dago Elgoibarren. Foru Aldundiak 2022rako iragarri zuen Pilarren egoitza berria erakitzea. Zer duzu esateko?**

Ikerketek diote 65 urtez gorakoen %20k menpekotasun arazoren bat izango dutela noizbait. Elgoibarren, 2020an, 65 urtez gorako 2.631 lagun geunden. Biztanleen %20, 526 lagun. Atera ditzala bakoitzak bere ondorioak! Guk argi daukagu denok nahi izaten dugula gure etxean bizi. Eta horretarako, gaur egun daukagun arreta soziosanitarioaren ereduari bultzada handia eman beharko genioke, batez ere mendekotasuna duten adinekoak beren etxeetan gera daitezen. Era berean, premiazkoa da egoitzetako plazak gehitzea, osasun arazoengatik euren etxeetan bizi ezin dutenentzat. El Pilar ikastetxeko Errezabal Elkarteak eta Gipuzkoako Gotzaindeak argi ikusi zuten etorkizuna zein zen eta 2010ean Elgoibarko Udalari utzi zizkieten lur-sailak, adinekoentzako zerbitzu-zentro bat erakitzeo. Ziur gaude, hori bai, duela 11 urte planteatutako ereduak, bai azpiegitura bera eta baita zaintza-modeloa ere, ez datozela bat gaur egungo ereduarekin. Itxaropentsu jarraitu nahi dugu eta gaur egun 65 urtez gorako elgoibartarroi (egoitzen erabiltzaile potentzialei) beharrezkoa iruditzen zaigu gogoeta hau egitea: Nola ikusten dituzue adinekoentzako egoitzak eta nolakoak izatea nahiko zenukete?.

♦ **Zer izan beharko lukete kontuan?**

Adinekoen kolektiboan, egoitzetan elkarrekin bizi diren lau talde bereiz daitezke. Autonomoak, laguntzarik behar ez dutenak; gabeziak izan arren mendekoak ez direnak; autonomiaren bat duten mendekoak; eta mendekoak, endekapenezko gaitasunen bat dutenak (adibidez, Alzheimerra), gabezia kognitiboak dituztenak, eta titulartasun eta kudeaketa publikoko zentro batean sartzea beste aukerarik ez dutenak. Talde bakoitzak bere beharrak dauzka, baina pertsona ardatz duten arreta-zentroak behar dituzte. Pertsonak izan behar du beti protagonista.

*“Ziur gaude duela 11 urte
Pilarrerako planteatutako ereduak,
bai azpiegitura bera eta
baita zaintza-eredua ere,
ez datozela bat egungoarekin”*

Egoitza batean bizi denak sentitu beharko luke bere etxean bezala bizi dela. Europako iparraldean eta erdialdean, eta gero eta gehiago hemen ere, eredu hori ari dira sustatzen. Etxebizitza baten pareko egoitzak behar dira, eta ez hotel eta ospitaleen antzeko zentro handiak, korridore luzedunak. Estresa eta depresioa eragiten dute horiek. Belaunaldien arteko harremana ere sustatu behar dute eraikinek. Senideek egoitzetan parte hartzea erraztu behar da. Hiriguneetatik gertu dauden eraikinak behar ditugu, erabilera askotariko aretodunak, egoiliarrek urtebetetzeak eta bestelakoak familiakoekin ospa ditzaten, eta behar ditugu lorategia edo aire zabaleko espazioak ere egoitzen bueltan. Era berean, asko hitz egiten da egoitzen medikalizazioari buruz ere. Pandemiak iraun bitartean onartu daiteke, baina bestela ez. Pertsona guzientzako baliabide arruntak erabiltzean oinarritu behar da osasun-laguntza.

Eta jakina horrez gain, bi kontu hartu behar dira oso kontuan: egoitzetako langileen lan-baldintzak hobetu behar dira, bai eta prestakuntza ere. Zaintzari balioa eman behar zaio, prestigioa, eta langile-ratioak hobetu behar dira egoitzetan, eta plazak gehitu. Saihestu behar dugu langileen txandakatzea. Arretak, kaltetuzkoa izango bada, eskatzen duelako erreferentziatzeko norbaitek zaintzea. Eta batez ere, gauza bat: adinekoak ez dugu nahi gure iritzia aintzat hartuko ez duen ezer.

♦ **Lau talde aipatu dituzu. Zer behar dugu bakoitzerako?**

Bidea eman beharko genuke lehenengo bi taldeetakoak (autonomoak eta gabeziak izan arren mendeko ez direnak) eta ahal bada hirugarren taldekoak ere (autonomiaren bat duten mendekoak), beren etxean bizitzeko, hala nahi badute behintzat. Eta bestela, 8-10 lagunentzako moduluak sortu beharko genituzke, beren etxeetan bezala bizi daitezen. Periferiatik erdigunera ekarri beharko genituzke, oztopo arkitektonikoak kendu eta belaunaldi arteko ikuspegia duten etxebizitzak eraiki (beheko solairuak adinekoentzat, eta goikoak, familia gazteentzat). Beste bi taldeei erreparatuta esango nuke, egoitza batean bizitzeaz dugun ikuspegi tristea baztertu behar dugula. Adinekoen perfila aldatzen ari da; komunikatiboagoak dira, prestakuntza handiagoa dute eta zorrotzagoak dira nahi dutenarekin. Indibiduotzat tratatu behar ditugu, beren gaitasunak kontuan hartuta. Senideak eta profesional kualifikatuak behar dituzte ondoan, eta beren autonomia eta independentzia kontuan hartzea, bai eta komunitateari zabaldutako jardueretan parte hartzea ere.

▶ MAIALEN SANCHEZ

IDAZLEA

Maialen Sanchezek (Elgoibar, 1985) estreinako liburua kaleratu berri du, Sevillako Punto Rojo argitaletxearekin: 'El jueves a las cinco'. Ofizioz erizain laguntzailea da, baina beti izan du gustuko idaztea. Zaharren egoitza batean lan egiten du, eta Covid19-aren pandemia iritsi zenean lanak gaina hartu zion. 12-15 orduko lan jardunak izaten zituen sarri, eta lana ez beste guztia alboratu zuen, idaztea ere bai. Bere buruari "omenaldi moduko bat" egin dio liburuan, bizimodu erreala eta fikzioa uztartuta.

- AINHOA ANDONEGI -



“Ni idazlea naiz, baina erizain laguntzaile izateak ematen dit jaten”

♦ Erizain laguntzailea ofizioz, eta idazlea afizioz. Nola hasi zinen idazten?

Betidanik gustatu izan zait idaztea, eta asko idatzi izan dut. Nire sentimenduak islatzen ditut idatzietan, eta asko laguntzen dit. Poemak idatzi izan ditut, istorio laburrak, eta paragrafo solteak ere asko. Lasaitasuna ematen dit idazteak. Eta orain dela lau urte Sevillako Punto Rojo argitaletxearekin hasi nintzen lanean. Nire lagun batek egiten du bertan lan, eta haren bitartez sartu nintzen argitaletxean. Idazle bati testuak zuzentzen nizkion, eta nire iritzia ere ematen nion tarteka. Idazleek momentu batzuetan zalantzak izaten dituzte protagonistekin, ez dute jakiten zer egin beraiekin, eta nik laguntzen nien horrelako egoeretan aurrera egiten. Horrez gain, nire testuak ere argitaratzen zituzten argitaletxearen webgunean, baina beti modu anonimoan; sekula ez nuen izenik ematen, ez nituen artikulua sinatzen edo ezizenen bat jartzen nuen. Idaztea gustatzen zait, baina orain arte beti oso pribatuan idatzi izan dut, isilean.

♦ Anonimotasuna atzean laga eta aurpegia eman duzu 'El jueves a las cinco' liburuan. Nola sortu zitzazun liburua idazteko ideia?

Pandemiaren ondorioz etorri zitzaidan liburua idazteko beharra. Erizain laguntzailea naiz zahar etxe batean, eta pandemiarekin oso gaizki pasatu dugu, besteak beste, lanean jarraitu genuen langileok 15-20 orduko lan jardunak egin behar izan genituelako. Egoera oso gogorra izan da. Beldur handia pasatu dugu. Laguntza psikologikoa behar izan nuen egoerari aurre egiteko. Madrillogo psikologo batekin jarri nintzen harremanetan, eta online izaten nituen saiok berarekin. Nire babesa izan da, eta hari esker eman nion egoerari buelta. Egoera horretan hasi nintzen istorioa idazten, eta urte honen hasieran azaldu nion nire ideia argitaletxeari. Zirriborroa bidaltzeko esan zidaten, eta gustatu zitzaien. Liburua idaztera animatu ninduten, eta aholku batzuk ere eman zizkidaten liburua idazteko: laburra izan behar zen, irakurterraza, arina, idazkera argikoa... Niri ere ez zaizkit gustatzen

denboran aurrera eta atzera egiten duten eleberriak, eta nobela lineal bat idatzi dut.

◆ Omenezko liburua dela diozu. Zer esan nahi duzu horrekin?

Fikziozko istorio bat nire benetako bizitzarekin uztartu dut. Ez da liburu autobiografiko bat, baina asko dauka niretik. Nik *Noa* izeneko txakur bat daukat. Tratu txarrak jasandako txakurra da eta adopzioan hartu nuen. Bizipen gogorak ditu nire txakurrak, eta istorio hori sartu dut, adibidez, liburuan. Nik gai horri garrantzi handia ematen diot, eta liburuan azaldu dut nire txakurraren istorioa. *BARREN* aldizkariari ere egin diot keinu bat liburuan. Pirinioetan kokatzen da istorio nagusia, eta aipatzen dut herri txiki bateko herri aldizkari bat. Kokalekuak ere denak benetakoak dira. Nik asko bidaiatzen dut, eta ezagutzen ditudan lekuetan kokatu dut eleberria. Pertsonaiak ere benetakoak dira asko, baina izena aldatuta, eta alderantziz ere egin dut, nire inguruko lagunena izena eman diet asmatutako pertsonaiei. Omenezko liburu bat dela esaten dut, nire buruarentzat eta baita nire ingurukoentzat. Fikziozko istorioa da, baina errealitateko kontu askorekin nahastu dut.

◆ Ostegunean bostetan; zer gertatzen da?

Hitzordu garrantzitsu bat da niretzat. Nire psikologoarekin zita izaten dut ostegunero, bostetan. Berak animatu ninduen berriz ni izatera, pandemiako egoera iluna atzean utzi eta aurrera egiteko indarra eman zidan, eta nor naizen erakusteko unea iritsi da. Psikologoa izan da nire argia pandemiaren iluntasunean, eta berari ere omenaldi bat egin nahi izan diot. Liburu barruan ere eskaini dizkiot hitz batzuk berari.

◆ Liburuaren nondik norako labur bat kontatuko diguzu?

Ospitaleko harreran lan egiten duen neska bat da protagonista. 25 urte ditu, lanpostu finkoa, soldata duina... bizimodua eginga dauka nolabait esateko, baina konturatuko da berak ez duela bizimodu hori nahi. Furgoneta bat dauka, txakurra, eta asko bidaiatzen du. Bidai horietako batean, herri huts batera iritsiko da, eta pertsonaia mistiko batekin topo egingo du. Zerbait kontatuko dio pertsonai horrek, eta hortik hasiko da herriaren istorioa ikertzen. Lana utzi eta herriari bizitza ematen hasiko da. Herri horretan eraikin esanguratsu bat dago, eta bizia itzuliko dio eraikin horri ere. Mezua dauka amaieran, eta gogoezarako balioko du.

◆ Nolakoa izan da liburuaren idazketa prozesua?

Askok harritu egingo dira agian, baina liburu hau sakelako telefonoan idatzita dago oso-osoan. Zuzenketak ordenagailuan egin nituen, baina idatzi, telefonoan. Edozein unetan eta edozein lekutan bilatzen dut inspirazioa, eta telefonoa eskura izaten dudanez, bertan idazten dut askotan, baina berdin-berdin idatzi dezaket eskuz ere, aho-zapi batean esaterako. Bi astetan idatzi nuen liburua. Gehiena idatzita neukan aurrez, zatika neukan istorioa eta dena bateratu behar izan

nuen. Forma eman, eta gero, zuzenketekin, sei bat hilabeteko prozesua izango zen guztira, baina idatzi bi astetan egin nuen. Zuzenketak ondo egin nahi nituen, garrantzi handia eman diot, eta argitaletxeak zuzentzeaz gain, zuzentzaile profesional bat kontratatu nuen horretarako. Garrantzia eman diot idazketari; ondo idatzita egotea nahi nuen.

◆ Zuzentzaileen artean, miresten duzun idazle bat ere egon da.

Bai. Punto Rojo editorialak Paulo Coelho idazlearekin egin du lan, eta nire lagunaren bitartez jakin dut berak ere irakurri duela nire liburua. Hala izan bada, ilusio handia egiten dit.

◆ Zer eman dizu liburu honek?

Gauza asko. Nire inguruko jende askok ez zuen ezagutzen nire afizio hau. Gurasoek bazekiten tarteka idazten nuela, baina ez zuten uste nire zaletasuna horrenbestekoa zenik. Ingurukoak harritu egin dira liburua eskuartean hartu dutenean. *Booktrailer* pare bat egin genituen zerbait zetorrela iragartzeko, baina ez zen inon esaten liburu bat zenik. Batzuek uste zuten dena utzi eta bidaiatzera nindoala, edo herri miesteriotsu batera joango nintzela bizitzera. Liburu zela ikusi zutenean, gehienak harritu egin ziren.

◆ Non eskuratu daiteke liburua?

Paperean eta formatu digitalean argitaratu dut. Ni paperaren aldekoa naiz, eta askoz gehiago gustatzen zait liburuak paperean irakurtzea, baina gaur egun digitalean ere atera beharra dago. Amazonen, Fnac-en eta edozein liburu dendatan eskura daiteke. Harrera oso ona izan du, eta hasierako 100 aleak berehala saldu ziren. Finlandian ere erosi dute liburua! Irakurri duen jendeak esan dit asko gustatu zaiola, eta oso pozik nago. Etekin ekonomiko oso txikia ematen du honek, bitartekariak eramaten dutelako irabazien zati handi bat eta idazlearentzat ez delako asko geratzen, baina niretzako satisfazio handia izan da liburua argitaratzea.

◆ Ametsei buruz hitz egiten duzu liburuan. Zure ametsa izan daiteke literaturatik bizitzea?

Zalantzarik gabe. Literaturatik bizitzea gustatuko litzaidake, edozein modalitatetan. Liburuak idazten, hitzaldiak ematen... literaturarekin erlazioatutako edozertan lan egingo nuke gustura. Nik argi daukat: idazlea naiz, baina erizain laguntzaile izateak ematen dit jaten.

◆ Bigarren libururik egongo al da?

Seguruena bai. Ez da izango honen jarraipena, hala ere. Hau hasi eta amaitu egin da, baina dagoeneko badaukat bigarren liburu baterako ideia. Orain apur bat presiopean idazten ari naiz, eta hori ez zait gustatzen. Argitaletxea ere oso gustura geratu da liburu honekin eta gainean daukat bigarren liburu bat eskatzen, baina lasai hartzeko asmoa daukat.

“Askok harritu egingo dira, baina liburu hau sakelako telefonoan idatzita dago”



1994

Aste honetako erretratu zaharra Anton Zabaletak ekarri du BARRENEko erredakziora. 1994ko uztailaren 17ko erretratua da, eta argazkian agertzen direnak parrokiako koruko tenoreak dira. Donostiara egin zuten irteera egun hartan, eta hango Carmeliten ganberan abestu zuten. Jaizkibelen egin zuten hamarretakoa, eta ondoren, Hondarribian bazkaldu zuten.

Ezkerretik eskumara: Luis Mari Zubiaurre (†), Miguel Ajubita, Jose Perez Cortes (†), Patxi Ajubita (†), Anton Zabaleta, Rafael (†), Julian Iriondo (†), Sabin Beristain (†) eta Jose Ignacio Jauregi.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.



▶ Kalegoen plazan egin zuten Errosarioko Amaren ezpata-dantza

Pandemiaren eraginez bertan behera laga zuten iaz Errosarioko Amaren ezpata-dantza, baina aurten ez dute hutsik egin. Oraindik ere pandemiara egokitutako hainbat neurri hartu behar izan zituzten Haritz Dantza Taldekoek domekan, eta jende pilaketak sahisteko, ez zuten prozesiorik egin. Ezpata txikiak meza nagusian dantzatu zuten orain arte bezala, eta aurten, estreinako, ezpata luzeak ere parte hartu zuten eliza barruan. Ondoren, elizako arkupeetan eta plazan bertan dantzatu zuten. Eguraldi heze eta euritsua egin zuen domekan, baina hala ere, herritarrak gerturatu ziren plazara dantza saioa ikustera. Haritz Dantza Taldekoek ekitaldia baliatu zuten hil berri den Abel Iriondo dantzariari omenaldia egiteko. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: barren.eus



Lore eskaintza egin diote Amabirjinaren irudiari

Errosario kaleko jai-batzordeak amaitutzat eman zuen bere jarduna 2016an, eta jaiak antolatzeari laga zioten, baina hala ere, Amabirjinari loreak eskaintzen jarraitzen dute urtero, eta aurten ere halaxe egin dute. Joan zen zapatuan jarri zituen lorak Roberto Merinok. Urriaren 7an prozesioa egin izan dute, baina pandemiaren azken bi urteotan bertan behera geratu da.



Ezeren aztarrenik ez izan: Antzeman; nondik nora doan asmatu.
Arrastorik ere etxauat hartzen hire problemiari! Baita Ezeren aztarrenik ez izan.


Antzinako aztarnak ezagutzeko bisita gidatua antolatu dute biharko, Urkaregitik Arnoatera

Elgoibarren sorreraren 675. urteurreneko ekintzen barruan bisita gidatua egingo dute bihar, Urkaregitik Arnoatera. Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek eta Pedro Mari Andonegik gidatuko dute saioa, eta besteak beste ingurune horretan dauden mugarriak eta korta-harriak ezagutuko dituzte. Ingurune hori zona garrantzitsua zen Erdi Aroan, bi lurralde historikoen arteko muga zelako, eta hainbat herrik bat egiten zutelako bertan. Zelaietaburun ere geldialdia egingo dute eta 36ko Gerrari buruzko hainbat azalpen emango dituzte bertan.



Urkaregiko aparkalekuan jarri dute hitzordua, 9:00etan. Ez da izenik eman behar. Bederatzi kilometroko ibilbidea egingo dute guztira, eta antolatzaileek gomendatu dute oinetako erosok eramateko.

Ikasketa gela egunero zabalik



Aita Agirre Kulturgunean dagoen Ikasketa Gelak Covid-19aren pandemia aurreko ordutegia berreskuratu du, eta urriaren 4tik aurrera, egunero dago zabalik. Honakoa izango da ikasketa gela erabiltzeko ordutegia: astelehenetik domekara, 8:00etatik 23:00etara. Gehieneko edukiera hamabi pertsonakoa izango da (sei lagunekoa zen orain arte). Gela erabiltzeko 18 urte edo gehiago izan behar dira, eta liburutegira sartzeko txartelaren titularrak izan behar da. Eskaera formala egin behar da gela hau erabiltzeko, telefonoz edo e-mailez (HAZ arreta@elgoibar.eus, 943 741 050). Ikasketa gela estreinakoz eskatzen denean, horretarako prestatuta dagoen eskaera orria bete beharko da, modu telematikoan, www.elgoibar.eus atarian. Horrez gain, ikasketa gela erabiltzeko G txartelaren alta tramitatze eskaera orri bat bete beharko da, Herritarren Arreta Zerbitzuan edo Elgoibarko Udalaren webgunean. Txartela pertsonala eta besterenezina da, eta titularrak ez den inork ezin du erabili. Inork ezin da sartu, txartelak ez badu. Txartela egitea doan da.

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Kultur Kafeak urriko asteburuetarako


Aita Agirre Kultur Kafeak zenbait ekintza antolatu ditu urriko asteburuetarako. Urriaren 15-16 asteburuan bigarren Trivial txapelketa egingo dute, barikuan euskaraz, eta zapatuan, gaztelaniaz. Gehienez bi-lau laguneko sei taldek hartu dezakete parte, eta irabazleak edaria eta errazio jasoko ditu sarritzat. 19:00etan hasiko dira bi saioak. Hurrengo asteburua, berriz, bideo jokoan asteburua izango da. Barikuan Super smash Bros jokoan lehiatu beharko dute partaideak (18:30etik aurrera); zapatuan, FIFA jokoan eta domekan, Mario Kart Deluxe jokoan. Parte hartzeko bi euro ordaindu beharko ditu partaide bakoitzak, eta irabazleak bildutako dirua, edaria, platertxoak eta eguneko platera irabaziko ditu. Azkenik, urriaren 30ean xaboi naturalak egiten ikasteko tailerra egingo dute, 16:00etatik aurrera. Izen emateko 10 euro ordaindu behar dira. Ekitaldi hauei buruzko informazio gehiago tabernan bertan eskuratu daiteke.

'Andanzas de un flautista llamado Tristrás' eleberria argitaratuko du Iban Barrenetxeak



Hirugarren eleberria argitaratuko du Iban Barrenetxea idazle eta ilustratzaileak (Elgoibar, 1973) astelehenean, urriaren 11n: *Andanzas de un flautista llamado Tristrás*.

Diseinu grafikoan hamar urte baino gehiagoan jardun ostean, 2010ean liburuak ilustratzeari ekin zion Barrenetxeak, eta geroztik, hogeitaka liburu ilustratu ditu, baina berak idatzi eta ilustratutako beste zazpi lan ere baditu: lau ipuin-liburu eta hiru eleberri. Azkeneko eleberri hau Nórdica infantil argitaletxearekin argitaratuko du. "Abentura liburu bat da, fantasiako lan bat. Azkenaldian ikusten ari naiz haurrentzako liburu gehienetan balio ezberdinak lantzeko ahalegin bat, baina *Andanzas de un flautista llamado Tristrás* eleberrian ez dago halakorik. Libre aritu naiz ni; ipuin tradizionalan bezala", zehaztu du idazleak berak.



Gaur da azken eguna 'Euskara ala ezkara' jardunaldian izena emateko

Euskara ala ezkara ertzetan? izango da aurtengo jardunaldiaren leloa, eta besteak beste, XXI. mendeko euskal identitateak aztertuko dituzte. *Zelakoak izan ginen euskaldunak? Eta orain zelakoak gara? Zertan aldatu gara? Zer da euskaldun izatea? Badago hizkuntza-ideologiarik?* Galdera horien eta antzerakoen gainean jardungo dira hilaren 16an, IMH ikastetxean (9:30-14:30). Hizlari gonbidatuak honakoak dira aurtan: Miren Artetxe Euskal Filologian lizentziatua, bertsolaria eta soziolinguistikan ikerlaria; Ibai Iztueta Biologian lizentziaduna eta kognizio zientzien eta giza zientzien adarrean doktorea EHUUn; Eneko Gorri, Miarritzeko Euskara teknikaria eta iaz, Txillardeggi-Hausnartu soziolinguistika saria eskuratu zuena, *Euskaltzaletasuna sendotzeko ekosistema komunikatiboa* lanagatik; Tarana Karim abokatua, itzultzailea eta aktibista; Kike Amonarriz Euskal Filologian lizentziatutako soziolinguista eta egun Euskaltzaleen Topaguneko presidentea; Ningra raplari euskalduna; Garazi Arrula Txalaparta argitaletxeko editorea; Nerea Ibartzabal idazle, bertsolari eta kazetaria; eta Idurre Eskisabel kazetari eta antropologoa. Jardunaldion inguruan informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko Elgoibarko Izarrara deitu edo idatzi behar da: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626 / 643 499 169. Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean antolatuko dute jardunaldia, Elgoibarko IMH ikastetxearen laguntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.

Elgoibarko ludotekaren ikasturtea hasteko jaia, gaur, Bolatokian

Gaur hasiko dute ikasturtea Elgoibarko Udal Ludotekan, eta gaur arratsaldean bolatokian egingo duten jaiarekin emango diote hasiera. LH5 eta LH6ko neska-mutilei zuzenduta dago jaia, doan izango da, eta 17:00etan hasi eta 19:00etan bukatuko da. Tarte horretan tailer ezberdinak egingo dituzte haurrek. Udaletik parte hartzera deitu dituzte adin tarte horretako haurrak. Bide batez, ludoteka bezalako espazioek duten garrantzia ere azpimarratu dute: "Elgoibarko Ludoteka gaztetxoentzako elkargunea da. Hezkuntza espazio honen helburua da, jolas-jardueren bidez, herriko neska-mutillak elkar ezagutzea, eta une atseginak pasatzea. Beti ere, begirale baten zaintzapean". Arratsaldean euria egingo balu, Maalako aterpera aldatuko dute lekuz jaia. Udaletik jakinarazi dute COVID-19aren prebentziorako ezarritako neurriak errespetatuko dituztela.

Euskal dantza eskoletan izena emateko epea zabalik dago Mendaron

Iazko etenaren ondotik, aurtan, berriro jarri dituzte martxan Mendaron euskal dantza eskolak, Azpilgoetako Kultur Etxean. Astelehenean egin zuten lehen bilera bat, ordutegia lotu eta taldeak nola osatu aztertzeko, baina jakinarazi dute izena emateko aukera dagoela oraindik. Momentuan bi talde osatu dituzte: haurrena (17:00etatik 18:00etara) eta nagusia (Momentuan, 18:30etik 19:30era, baina alda daiteke), eta Debako Gure Kai dantza taldeko Amaia Ajuriagoikoa eta Elgoibarko Haritz dantza taldeko Imanol Arantzamendi izango dira irakasleak. Izena emateko honako telefono honetara deitu behar da: 696 414 796 (Nerea).

Bera Berak 32-26 irabazi dio Zuazori Olaizagan jokatu duten Euskal Kopako finalerdian



Beste behin ere goi mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera izan da Elgoibarren. Liga Guerreras Iberdrola Ligan diharduten bi euskal taldeak, Super Amara Bera Bera eta Zubileta Evolution BM Zuazo, zuzenean ikusteko aukera egon zen eguaztenean, Olaizaga kiroldegian. Euskal Kopako finalerako sailkapena zuten jokoan eta donostiarrek egin zuten aurrera Barakaldoko taldeari 32-26ko emaitzarekin irabazita. Partida berezia izan zen June Loidi elgoibartarrarentzat, Bera Berako jokalariaik joan den sasoiran arte bere taldea izan zena izan baitzuen aurkari, Sanloko jokalaria izan zen garaietatik horren ondo ezagutzen duen kantxan. Bi taldeek oso modu desberdinean hasi dute liga txapelketa. Donostiarrek (gaur egungo liga txapeladunak) sailkapeneko gorenean daude, lehen postuan, Rocasarekin berdinduta, jokatutako lau partidak irabazita. June Loidik sei gol sartu ditu lehen lau jardunaldietan. Talde bizkaitarrak, berriz, partida bakarra irabazi du orain arte.



Emaitza onak Gipuzkoako Ehiza Xehetxapelketan

Elgoibarko eta Mendaroko ehiztariek emaitza onak eskuratu zituzten urriaren 3an Zambranako (Araba) El Castillo ehiza barrutian jokatu zuten Gipuzkoako Ehiza Xehetxapelketan. Ivan Bellok bigarren egin zuen senior gizonezkoetan. Emakumezkoetan Leire Egañak lortu zuen titulua. Juniorretan ere La Unioneko ordezkari Urko Garcia gailendu zen. Beteranoetan txapeladunorde izan zen Mauro Gonzalez (irudian garaikurrarekin). Domeka honetan Euskadiko txapelketan lehiatuko dira, Zambranan.

Alcortak Colegio Escolapios taldeari irabaziaz hasi du liga txapelketa

Iaz maila galdu ostean, Euskal Ligan lehiatuko da aurten Alcorta Forging Group senior gizonezkoen taldea. Joan zen zapatuan jokatu zuten ligako lehen partida, Bilbon, eta 24-27 irabazi zioten Colegio Escolapios taldeari. Guztira hamazortzi talde lehiatuko dira Euskal Ligan, hiru multzotan banatuta. Alcorta A Multzoan dago, eta Gipuzkoako eta Bizkaiko taldeak izango ditu aurkari, Legazpi, Urnieta, Bermeo, Bilbo eta Muskizeko taldeak, hain zuzen ere. Alcortak domekan jokatuko du etxeko lehen partida, Bermeo eta Mundakako Urdaibai Isabel taldearen aurka. Senior emakumezkoen taldeak, Gaurve Asesoresek, 18nako berdinketa lortu zuen Kukullaga Etxebarriri egin zion bisitan, ligako hirugarren jardunaldian. Hala, garaipen bat, porrot bat eta berdinketa bat eskuratu dituzte orain artean.



Idorbeko txirrindulari igoera bueltan da



Pandemiagatik bertan behera gelditu zen iaz, baina aurten berriro jokatuko dute Idorbeko igoera, txirrindulari denboraldiari amaiera ematen dion lasterketa. Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolatik jakinarazi dutenez, urriaren 12an izango da Julian San Juanen Oroimenezko txirrindulari lasterketaren 29. ekitaldia. Proba honetan 15 urtetik gorakoek parte hartu dezakete, gizon zein emakume. Proban lehiatu nahi dutenek, egunean bertan eman dezakete izena, 10:30etik 11:30era, Kalegoen plazan. Federatuta daudenek bost euro ordaindu beharko dituzte eta 15 euro federatu gabe daudenek. Txirrindulariak Kalegoen Plazatik irtengo dira 12:00etan. Orain arte jokatutako azken igoeran, 2019koan, Jon Astigarraga izan zen azkarrena. Lasterketa hiru alditan irabazi duen Iker Eskibel aretxabaltarrak du probaren errekorra: 13 minutu eta 17 segundo (2017an ezarri zuen).

Diseinu berria denboraldi berrirako

Lagun Taldeko arduradunek jakitera eman dutenez, denboraldia amaitu ez den arren, hurrengoari begira lanean hasita daude, eta eskolako txirrindulariek erabiliko duten arroparen diseinu berriak aurkeztu dituzte. Gainera, arropa eskaera egiteko aukera herritar guztiei zabaldu diete. "Arropak gogoko badituzue gurekin kontaktuan jar zaitezke eskaerak egiteko. Tallak eskatzeko lagungarria izan daiteke Etxeondo etxeko arropak direla jakitea", azaldu du Alex Aranberrik. Eskaerak egiteko idatzi mezua honako helbidera: elt_txe@hotmail.com.



310 ikaslek hasi dituzte Eskola Kiroleko saioak Elgoibarren

Elgoibarren 310 ikaslek eman dute izena eskola kirolean. Pandemia hasi aurrekoa baino kopuru txikiagoa. Izan ere, 2019-2020 ikasturtean, 426 ikasle aritu ziren eskola kirolean, hortaz, pandemiaren eragina oraindik agerikoa dela nabarmendu dute Elgoibarko Eskola kiroleko arduradunek. Astelehenean, urriaren 4an, egin zuten lehen saioa. Aurreko ikasturteko programa mantenduko dute, eta "momentuz" ez da lehiaketarik egongo asteburuetan. Parte hartzaileek jarraitu beharreko saioetarako gida modukoa osatu dute antolatzaileek, hainbat neurriekin. Besteak beste, monitoreak jasoko dituzte ikasleak instalakuntzaren kanpoan, musukoa uneoro eraman beharko dute kirola egiten den bitartean eta ahal den guztietan, 1,5 metroko distantzia mantendu behar dute gainerako ikaskideekiko. Gainera, toaila txiki bat, gel hidroalkoholikoa, eguneko musukoa gordetzeko zorroa, musuko ezberdina jarduerak egiteko eta ur botila bat eraman beharko dituzte saioetara; eta, ahal den neurrian, ez dituzte partekatu behar materialak, arropa eta botilak.



Artiboko argazkia

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Zainkerarako ikasketa ofizialak eginak ditut.

☎ 632 304 656

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko eta atarrietako garbiketak ere egiten ditut. Sukaldari laguntzaile moduan ere lan egingo nuke.

☎ 602 047 812

Lan bila nabil. Etxeetan garbiketa lanak egiten esperientzia daukat.

☎ 633 294 339 (Cinthy)

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan edo etxeko langile moduan.

☎ 631 425 686 (Laura)

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka.

☎ 631 229 408

Eskaintzak

Jatetxe batek sukaldea garbitzeko langilea eta asteburuetarako zerbitzaria behar ditu.

☎ 659 539 861

Asteburu eta jai egunetan jatetxe batean lan egiteko zerbitzaria behar da.

☎ 659 539 861

BESTELAKOAK.....

Eskalatzeak sokak hartuko genituzke Elgoibarko Izarran. 943 74 16 26 / atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretiratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.


BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretiratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p style="font-size: small; margin-top: 5px;">Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoako Finantza Administrazioen Kontseilua</p> <div style="text-align: center;">  <p style="font-weight: bold; font-size: 1.2em; margin-top: 5px;">ROSA Ma PINTADO</p> </div> <p style="font-size: x-small; margin-top: 10px;">Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p style="font-weight: bold; font-size: 1.2em; margin-top: 10px;">660 969 679</p> <p style="font-weight: bold; font-size: 1.2em; margin-top: 5px;">rosapf@telefonica.net</p>	<p style="font-weight: bold; margin-bottom: 5px;">Gure komunitateko jabe batek etxe bat baino gehiago ditu komunitatean bertan, eta azken bi urteetan ez ditu ordaindu etxe horietako bati dagozkion kuotak.. Jakin nahi nuke arrazoi horrengatik eskubideak murriztuta dituen.</p> <p style="font-size: x-small; margin-bottom: 5px;">Zuk galdetzen duzuna da jabeakide bat hainbat jabetzaren titularra bada, horien guztien kuotak egunean izan behar dituen ala ez. Legeak adierazten duenez, batzarra hasteko unean komunitatean ordura arte sortutako zorren ordaintzetan egunean ez dauden jabeek, zor horiek judizialki aurkaratu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute, eztabaidetan parte hartu ahal izango dute, baina ez dute boto-eskubiderik izango. Ildo horretan, jurisprudenzia kontsolidatua da, eta adierazten du jabe bakoitzari boto bat dagokiola, nahiz eta etxebizitza bakarraren edo batzuen titularra izan, gehiengo ekonomikoen ondorioetarako duen partaidetza-kuota handiagoa ahaztu gabe. Hau da, komunitateko kuotak ez ordaintzeari dagokionez, boto-eskubidea izateko aipatutako baldintza guztiak bete behar dira. Hala nola, batzarra hasteko unean dagoen egoera egiaztatzea, jabeek komunitatearekin mugaeguneratutako zor guztiak ordainduta izatea, eta, azkenik, zor horiek judizialki aurkaratu ez badituzte edo zordundutako zenbatekoa epailearen edo notarioaren zainpean utzi ez badute.</p> <p style="font-weight: bold; font-size: x-small; margin-bottom: 5px;">Ondorioa: boto eskubidea ukatzea orokorra da, zigor gisa aplikatzen baitzaie batzarra hasteko unean komunitateak aurrez izandako zor guztien ordaintzeta egunean ez duten jabeei. Beraz, komunitateko kuota guztiak ordaintzen ez dituen bitartean, boto eskubiderik ez du izango.</p>
 <p style="font-weight: bold; font-size: 1.1em; margin-top: 5px;">AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</p> <p style="font-size: x-small; margin-top: 5px;">San Bartolome, 2</p>	



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 biddalita.




Handitzen handitzen, bazoaz handitzen... Astelehenean 9 urte! Zorionak, **Luken!** Hurrengo parrillada zure kontu! Ondo ondo pasa eguna. Muxu potolo bat sorginen partez.



Zorionak, **Martin,** atzo 3 urte handi bete zenituelako. Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Malen!** Asteartean 12 urte bete zenituen! Primeran pasa genuen.



Zorionak, **Gorka,** asteazkenean 6 urte bete dituzulako. Mila kilo muxu, aiti-ti-ti, amona eta bereziki, Julenen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



*Mila esker
zuen konfiantzagatik!*

Neguko bilduma berria!

Etor zaitetz ikustera.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

..... BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B pegatina** falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARREneko bulegora etorri eta berria emango dizugu**

Barreneko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak **pegatinarekin markatzea.**

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



8 BARIKUA

12:00 Itzalaldia eta lapiko-jotzea. Enpresa elektrikari handien aurkako lapiko-jotze kalejira. Maalatik Kalegoen plazara.

17:00 Elgoibarko ludotekaren ikasturte hasierako jaia. Bolatokian.

17:30 Mendaroko gaztelekuaren batzarra. Mendaroko gaztelekuan.

9 ZAPATUA

9:00 Urkaregitik Arnoatera bisita gidatua, aintzinako aztarnak ikusteko. Javier Elorza, Pedro Mari Andonegi eta Pello Arrietarekin.

12 MARTITZENA

12:00 Idortorbera Igoera. Txirrundulari lasterketa, Lagun Taldeak antolatuta.

16 ZAPATUA

9:30-14:30 Jardunaldia: 'Euskara ala Ezkara ertzetan?'. Elgoibarko Izarrak antolatuta, IMHn.

17 DOMEKA

11:30 eta 12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

18 ASTELEHENA

18:00 Irakurketa feminista. Loredi Salegik gidatuta, ILLAn. Gaztelaniz izango da.

20 EGUAZTENA

17:00 Ipuin kontalaria: 'Marikalanbre, bizitzaren laborategian'. Ana Galarragaren eskutik, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

8 BARIKUA	9 ZAPATUA	10 DOMEKA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia
11 ASTELEHENA	12 MARTITZENA	13 EGUAZTENA
Egunez Arriola	Egunez *Ibañez	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego
14 EGUENA	15 BARIKUA	16 ZAPATUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez/*Yudego
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean ---
17 DOMEKA	18 ASTELEHENA	19 MARTITZENA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola
20 EGUAZTENA	21 EGUENA	22 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00

Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

Zinea Herriko Antzokian

- ❖ 'CHAVALAS': ● 8 barikua 21:00 ● 9 zapatua 19:00 / 22:15 ● 10 domeka 19:00
- ❖ 'LA PATRULLA CANINA': ● 10 domeka 16:30
- ❖ 'ADIÓS, IDIOTAS': ● 11 astelehena 21:30 ● 12 martitzena 19:00
- ❖ 'LAS COSAS QUE DECIMOS, LAS COSAS QUE HACEMOS' (Ongarri zinekluba): ● 13 eguaztena 21:00
- ❖ 'MAIXABEL': ● 15 barikua 21:00 ● 16 zapatua 19:00 / 22:15 ● 17 domeka 19:00 ● 18 astelehena 21:30
- ❖ 'DARTAKAN ETA HIRU MOSKETEROAK': ● 17 domeka 16:30
- ❖ 'AMA'(Ongarri zinekluba): ● 20 eguaztena 21:00

Osasun gida


RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745 


RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12

Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Eteaberria, 22
Eibar
677 551 850

Jeku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

 **Fernando Urizar Barandiaran**
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 963 628
www.fisio-mas.com
RPS 07/12



Eskertzak eta urteurrenak
943 743 704 / 688 769 657
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus


Manuel Gonzalez Iglesias
2021eko urriaren 1ean hil zen, 71 urte zituela.



Betirako izango zaitugu gogoan.

ZUBI - ONDO





EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

ESKAINITZA BEREZIA



INGELES A B1 ERDIPRESENTZIALA



ALEMANA B1 ERDIPRESENTZIALA

Matrikula: 72,36 euro urte osorako

ASTELEHENETAN 15:55-18:10 BI HIZKUNTZETARAKO

10 ikasle behar dira gutxienez taldea sortzeko!

Informazioa:

www.eoieibarheo.hezkuntza.eus

943 899 275

**Matrikula egiteko:
Informazioa web-orrian argitaratuko da urriaren 19an**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA GAILA



**Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas**